

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 9. artikulua arabera, Kontseilu Errektorea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren erabaki, administrazio eta kontroleko organo gorena da.

Osaera:

- Lehendakaritza Agentziako lehendakariari dagokio, edo, haren ordeztan, garapenerako lankidetzaren eskuduna den sailburuordeari.
- Lau kontseilukide, Eusko Jaurlaritzaren honako sail eta erakunde autonomo hauen ordezkari-lanetan:
 - Jaurlaritzaren Lehendakaritza.
 - Osasun-arloko Sail eskuduna.
 - Nekazaritza-arloko Sail eskuduna.
 - Ogasun-arloko Sail eskuduna.
- Hiru kontseilukide, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari-lanetan; Kontseilu horrek aukeratzen ditu langileen artean.
- Bi kontseilukide, Eusko Legebiltzarraren ordezkari-lanetan; Legebiltzarrak berak aukeratzen ditu.
- Idazkaria, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaria izango da.

Eginkizunak:

- a) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jardueren plan orokorrak onartzea.
- b) Laguntza eta diru-laguntza guztiei buruzko deialdiak onestea eta organo eskudunari proposatzea, bai eta laguntzok emateko oinarritzko irizpideak ere.
- c) Agentziaren urteko aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea.
- d) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jardueren urteko memoria onartzea.
- e) Aplikagarri zaizkion legezko baldintzen arabera, plantillen proposamena eta bere langileen ordainsariaubidearen proposamena egitea. Proposamen hori, betiere, Gobernu Kontseiluak onartu beharko du.
- f) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamenduaren aldaketa proposatzea, Gobernu Kontseiluari helarazteko.
- g) Gobernu Kontseiluaren onespina eskatzen duten beste erabaki-proposamen batzuk hari helarazteko proposatzea.
- h) Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamenduak gomendatzen dion beste zernahi eginkizun.
- i) Agentziako zuzendariaren izendapena eta kargugabetzea Eusko Jaurlaritzari proposatzea.
- j) Agentziako zuzendariaren kudeaketa kontrolatzea eta zuzendariari eskatu beharreko erantzukizunak eskatzea.
- k) Agentziaren jardunari jarraipena egitea, gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- l) Jardunari buruzko txosten bat eta kudeaketari buruz beharrezko iritzitako ohiz kanpoko txostenak onestea, haietan jasoz lortutako emaitzak eta antzemandako.

- m) Beste zenbait erakunde juridikotan parte hartzea baimentzea, haietan dagokien eskubidea erabiliz.
- n) Alde biko zuzeneko lankidetzaz hitzarmenak edo -ekintzak onestea.
- o) Plangintzako orientabide nagusiak eta lau urteko eta urteko planak proposatzea, Jaurlaritzari bidaltzeko

Kideak:

Lehendakaria:

- Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburua

Kontseilukideak:

- Jonan Fernández Erdozia jauna, Lehendakariaren aholkularia, Jaurlaritzako Lehendakariaren ordezkaria; ordezkoa: Iker Atxa Zaitegi jauna, Aholkularia.
- Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun Sailburuaren Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkaria, osasun-arloko sail eskudunarena; ordezkoa: Nerea Urien Azpitarte Andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.
- Bittor Oroz Izagirre jauna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ordezkaria, nekazaritza-arloko sail eskudunarena; ordezkoa, Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria.
- Hernando Lacalle Edeso jauna, Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkaria, ogasun-arloko sail eskudunarena ; ordezkoa, Fernando Iturriaga Ancín jauna, Programa eta Ikasketen Aholkularia.
- Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria; ordezkoa: Iñigo Eguren Valera jauna.
- Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria; ordezkoa, María del Mar Magallón Soneira andrea.
- Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria; ordezkoa, Elsa Fuente do Rosario andrea.
- Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, legebiltzarkidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkaria; ordezkoa, Eva Juez Garmendia andrea.
- Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, legebiltzarkidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkaria; ordezkoa, Jasone Agirre Garitaonandia.
- Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria eta Kontseilu Errektorearen idazkaria.